

## EUSKAL HERRIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA

Eusko Legebiltzarrak 1998an onartutako Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak, Euskal Herrirako eredu jasangarriarekiko konpromiso sendoa adierazten du, oraingo premiei erantzun eta etorkizuneko belau-naldiek beren premiei erantzuteko gaitasuna arriskutan izan ez dezaten.

Garapen-eredu berri hau bere ondorio guztiekin onartzeak, oraingo eredu aldaketa sakona eragiten saiatzea esan nahi du. Produkzioan eta kontsumoan portaera berriak sartzea esan nahi du. Pertsona gisa eta gizarte gisa poluzioari eta baliabide-kontsumoari buruz, hondakin-produkzioari buruz, lurzorua kaltetzeari buruz eta biodibertsitate-galerari buruz konpromisoa hartzea esan nahi du. Nolanahi ere, aldaketa hau ez bultzatzeak gure planetaren etorkizuna zalantzan jartzea eta etorkizunean bertan biziko direnen ongizatea hipotekatzeko adierazten du.

Beraz, beharrezkoa da gure bizi-kalitatea jasangarritasunaren zimendu gainean eraikitzea, hau da, ongizate ekonomikoaren, gizarte-justiziaren eta ingurugiro garbi eta osasungarriaren gainean eraikitzea. Zutabe hauek, hirurek, bultzatu behar dugun garapen-ereduko ezinbesteko oinarria osatzen dute. Ingurugiroa babestea, baliabideak eraginkortasunez erabiltzea eta ekosistemen produkzio-ahalmena dira kontuan hartzeko oinarrizko baldintzak.

Hau guztia dela eta, agiri honek jasangarritasunean oinarritutako eredu berrira iristeko konpromiso sendoaren adierazpena izan nahi du. Euskal Autonomia Erkidegoan hel-

## COMPROMISO POR LA SOSTENIBILIDAD DEL PAÍS VASCO

La Ley General de Protección del Medio Ambiente, aprobada por el Parlamento Vasco en 1998, expresa el firme compromiso con la adopción de un modelo de desarrollo sostenible para el País Vasco, capaz de satisfacer las necesidades del presente sin poner en peligro la capacidad de las generaciones venideras para cubrir las suyas propias.

Admitir con todas las consecuencias este nuevo modelo de desarrollo implica esforzarse en propiciar un profundo cambio en el actual. Significa introducir nuevas pautas de producción y consumo. Significa adquirir un compromiso personal y social frente a la contaminación y el consumo de recursos, la producción de residuos, la degradación de los suelos y la pérdida de la biodiversidad. En todo caso, no promover ese cambio supone poner en cuestión el futuro de nuestro planeta e hipotecar el bienestar de quienes lo habitarán mañana.

Es necesario, por tanto, edificar nuestra calidad de vida sobre los cimientos de la sostenibilidad: el bienestar económico, la justicia social y un medio ambiente limpio y saludable. Estos pilares, los tres, constituyen la base imprescindible del modelo de desarrollo que debemos impulsar. La protección del medio ambiente, el uso eficiente de los recursos y la capacidad productiva de los ecosistemas son los requisitos básicos que habremos de considerar.

Por todo ello, este documento quiere ser expresión de un compromiso firme para avanzar hacia un nuevo modelo de desarrollo basado en la sostenibilidad. La estrategia

buru horretarako adostutako estrategia, ondoko oinarriek definitzen dute:

- **Kode etikoa.** Globalizazioak, biztanleria-hazkundeak eta mundu guztian kontsumo-mailak igotzeak, baliabide-eskaria izugarri igoarazi dute. Industrializatutako herrialdeek garapen bidean diren herriekin eta hirugarren mundukoekin nazioarteko anaitasuna sustatzeko betebeharra dugu. Izan ere, gure gizarteak eta gurea bezalako gizarte garatuek sortutako ingurugiro-eraginaren zati handi bat haiek jasaten dute. Joera-aurreikuspenak dioenez, oraingo ingurugiro-arazo asko larriagoak izan daitezke hurrengo hamarkadan, batez ere gaur egungo produkzio eta kontsumoko ereduaren eraginez. Beraz, nahitaezkoa da gure pentsaera, gure baloreak, gure bizimodua eta gure kontsumo-portaerak aldatzea. Belaunaldien arteko eta nazioarteko anaitasuna gure zereginaren oinarri da.

- **Gizartearen kohesioa eta partaidetza.** Gizarteko sektore guztiek dute zeregina jasangarritasunerako prozesuan. Ingurugiro-degradaziora bultzatzen ari da zenbait sektore-politika, eta horiek aldatzeko eragin behar diren egitura-berrikuntza garrantzitsuak sartzeak, komunikazio-sistemak hobetzea eta herritarrak mobilizatzea esan nahi du. Politikak prestatzen eta erabakiak hartzen gizarteko eragile guztiek parte hartzeak, lagundu egingo du anaitasuneko eta ingurugiro-errespetuko baloreak geureganatzen.

acordada en la Comunidad Autónoma del País Vasco para este fin viene definida por los siguientes principios:

- **Código ético.** La globalización, el crecimiento demográfico y el aumento de los niveles de consumo en todo el mundo conllevan un enorme incremento en la demanda de los recursos. Los países industrializados tenemos la obligación de promover la solidaridad internacional con los países en vías de desarrollo y del denominado tercer mundo, sobre los cuales está recayendo buena parte de los impactos ambientales generados por las sociedades más desarrolladas, entre las que nos encontramos. La previsión de las tendencias señala que muchos de los problemas ambientales actuales pueden agravarse durante la próxima década debido fundamentalmente al actual modelo de producción y consumo. Es por tanto necesario modificar nuestros modos de pensar, nuestros valores, nuestros estilos de vida y nuestras pautas de consumo. La solidaridad intergeneracional e internacional son fundamentos de nuestro quehacer.

- **Cohesión y participación social.** Todos los sectores de la sociedad tienen un papel en el proceso hacia la sostenibilidad. Introducir los importantes cambios estructurales que se requieren para modificar las políticas sectoriales que están conduciendo a la degradación medioambiental, implica mejorar los sistemas de comunicación y movilizar a la ciudadanía. La participación de todos los agentes sociales en la configuración de las políticas y la toma de decisiones contribuirá a interiorizar los valores de solidaridad y de respeto al medio ambiente.

- **Arreta-oinarria.** Ingurugiroaren kontra kalteak sortzeko mehatxuak daudenean, ekintzak bultzatu behar ditugu. Ziur ez egotea edo ezagutza zientifikorik ez izatea, babesteko edozein ekintza atzeratzeko edo eragozteko ez da nahikoa arrazoi izango.

- **Ikuspegi integratua.** Jasangarritasunerantz aurrera egitea ez da ingurugiro politikak erabilita bakarrik lortuko, ingurugiro-portaerak dituzten politika sozioekonomiko sendotuen bidez baizik. Beraz, lehentasuna du ingurugiro-aldagaia sektore-politika guztietan txertatzeak, eta batez ere industrian, garraioan, energian, nekazaritzan eta kontsumoan txertatzeak.

- **Ekoeraginkortasuna.** Hurrengo hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoaren aukera nagusia honako hau izango da: giza baliabide gehiago erabilita eta baliabide natural gutxiago erabilita, ongizate-maila handiagoa lortzea. Hazkunde ekonomikoa baliabideak erabiltzetik eta poluziotik askatzea erabat funtsezkoa da garapen jasangarria lortzeko. Produktibitatea handiagotuta baliabide natural gutxiago erabiltzeko aldaketa egin daiteke eta egin behar da. Horrela ekonomiako sektore guztietan ingurugiro-eragina txikiagoa izango da produktu eta zerbitzuen bizialdi osoan zehar. Ekoeraginkortasuneko teknologi iraultza, bera bakarrik nahikoa ez bada ere, jasangarritasunerako beharrezko gaia da.

- **Plangintza Estrategikoa.** Euskal Herriko ingurugiro-helburuek, euskal gizarteak beretzat eta hurrengo belaunaldientzat onartzeko prest dagoen inguru-

- **Principio de Precaución.** Hemos de impulsar actuaciones siempre que existan amenazas de producirse algún daño contra el medio ambiente. La falta de certidumbre o de conocimiento científico no será motivo suficiente para retrasar o impedir cualquier acción encaminada a protegerlo.

- **Enfoque Integrado.** El progreso hacia la sostenibilidad no se conseguirá sólo mediante la aplicación de políticas medioambientales sino a través de políticas socioeconómicas reforzadas que sigan pautas ambientalistas. Es por lo tanto prioritario integrar la variable ambiental en todas las políticas sectoriales, y en especial en la industria, el transporte, la energía, la agricultura y el consumo.

- **Ecoeficiencia.** La principal oportunidad para la Comunidad Autónoma Vasca durante la próxima década será producir más bienestar usando más recursos humanos y menos recursos naturales. El desacoplamiento del crecimiento económico respecto del uso de los recursos y de la contaminación es absolutamente esencial para lograr un desarrollo sostenible. Puede y debe darse una transformación que reduzca el uso de los recursos naturales, incrementando su productividad, y de este modo genere menores impactos ambientales en todos los sectores económicos y a lo largo de todo el ciclo de vida de los productos y servicios. La revolución tecnológica de la ecoeficiencia, aunque no suficiente, es un factor necesario de sostenibilidad.

- **Planificación Estratégica.** Los objetivos ambientales del País Vasco han de ser fruto de un proceso de reflexión sobre el tipo de calidad ambiental

giro-kalitateaz egindako gogoeta-prozesuaren emaitza izan behar dute. Garapen-eredu berriak Ingurugiroko Esparru Programan islatu behar du.

Garapen jasagarria, berehala eta tinko ekitea eskatzen duen estrategia jarraitu gisa hartu behar da. Jasagarritasunerantz aurrera egiteak ingurugiro, gizarte, ekonomia eta kulturako etekinak jaso eta besteentzat uztea esan nahi du.

### **Euskal Herriko jasagarritasunaren alde.**

Bilbon, 2001eko urtarrilaren 22an

---

que la sociedad vasca está dispuesta a aceptar para sí y para las generaciones venideras. El nuevo modelo de desarrollo se tiene que reflejar en el Programa Marco Ambiental.

El desarrollo sostenible debe contemplarse como una estrategia continua que exige actuar de inmediato y de forma firme y decidida. Avanzar hacia la sostenibilidad supone recoger y legar beneficios ambientales, sociales, económicos, y culturales.

### **Por la sostenibilidad del País Vasco.**

Bilbao, 22 de enero de 2001

---

# JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOAREKIKO ATXIKIPENA

## ADHESIÓN AL COMPROMISO DE SOSTENIBILIDAD

D/Dña. .... J./A.

nire atxikipena / me adhiero a

maila pertsonalean  
título personal

ordeazkatzen dudan erakundearen izenean  
título de la institución que represento

adierazi nahi dut "Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasunerako Konpromisoarekiko"  
al "Compromiso por la Sostenibilidad del País Vasco"

.....2002eko .....ren .....an / .....a ..... de .....de 2002

Kalea / Calle .....

Herria / Población .....

Posta kutxa / C.P. ....

Emaila / E-mail .....

Sinadura / Firma

Konpromiso hau sinatzeak hor jasotako printzipioak betetzeko sinatzaileek beren esku dauden ekintzak burutzeko prest daudela esan nahi du.

La firma de este Compromiso supone la disposición de los firmantes a desarrollar las acciones que estén en su mano para que los principios del mismo se cumplan.

### INFORMAZIOA / INFORMACIÓN

Honako gaietako JASANGARRITASUNERAKO funtsezko agiriak doan jaso nahiko nituzke:  
Quisiera ir recibiendo gratuitamente los documentos clave de SOSTENIBILIDAD en:

- |  |  |
|--|--|
| Garraioa / Transporte <input type="checkbox"/>     | <input type="checkbox"/> Ekonomia / Economía   |
| Industria / Industria <input type="checkbox"/>     | <input type="checkbox"/> Enplegua / Empleo     |
| Energia / Energía <input type="checkbox"/>         | <input type="checkbox"/> Udalerria / Municipio |
| Turismoa / Turismo <input type="checkbox"/>        | <input type="checkbox"/> Gizartea / Sociedad   |
| Nekazaritza / Agricultura <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> Osasuna / Salud       |
| Kontsumoa / Consumo <input type="checkbox"/>       | <input type="checkbox"/> Hezkuntza / Educación |